

EUSKAL OLERKI BIBLIOGRAFIARAKO BILDUMA

(1945-1964)

Ogei urteko olerki bibliografia onetan batu nai nituzke argitaratu diran liburu guzien zeaztasunak eta olerkiak argitaratu dituzten aldizkarien berri labur bat. Bertan ez dira sartuko alegia edo ipui erara egindakoak, ez eta ere bertsolaritzakoak eta kantak. Oiek beste zentzu batekoak diranez, nasketarik sortu ez dedin, aparte utziko ditugu. Ala ere, bertsolari gisa edo itxurara egin diran olerki liburuak aipatuak izango dira.

Bilketa egiten asi nintzanean, ogeitabost urteko bilduma egin nai nuen, baiña 1937-tik 1945-era arte ixil une ikaragarri batek estali zuan euskal olerkia. Irakurleak konprenituko du ixiltasun ori. Une ortan, *Gure herria* aldizkaria izango zan noski olerkiren bat edo beste argitaratu zuana. 1944-an *Herria* astekaria asi zan ixiltasuna etetzen eta urrengo urtean ikusi zuan argia lenengoko liburuak, eta bere izenak dion bezela *Urrundik* ari zan dei lauso baten gisa berriz olerkarien ekintzari asteko. Bibliografia onetan urteetan maillaz-mailla jarriak daudenez, berau izango da agiririk zintzoena gerorantz urtetik-urtera dakarren indarra adierazteko. Eta, beste gabe, nijoan arira.

I.—EUSKERA UTSEAN ARGITARTUTAKO LIBURUAK

Goldaketan, Iokin Zaitegi Plazaola. 215 orrialde, 11,5 x 17 zentimetruko neurrian. Editorial «Pizkunde». Taller Editorial Bolivar. México, D. F. 1946.

Gudarien egiñak, Telesforo Monzón-Olaso. 110 orrialde, 14 x 20 zm. Imprimerie Moderne. Biarritz, 1947.

Koblak, Piarres Ibarrart. 30 o., 14 x 21 zm. Editions «Herria». Imprimerie du Courrier. Baiona, 1948.

Arantzazu, euskal poema, Salvatore Mitxelena. 253 o., 16 x 22 zm. Editorial Aránzazu. Oñate, 1949.

Euskaldunak, Nikolas Ormaetxea «Orixe». 586 o., 16 x 22 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1950.

Olerki berrizte, Emeterio Arrese. 111 o., 12 x 18 zm. Kuliska Sorta 2. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1952.

Jesus aurtxoaren lenengo itzaldiak, (aur poematxo), Romualdo Galdós. 36 o., 12 x 17 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1952.

Pindar eta Lanho (1920-1941), Jean Diharce «Iratzeder». 94 o., 16 x 24,5 zm. Editions Ezkila. Urt, 1954.

Milla euskal-olerki eder (bilduma), Aita Onaindia. 1.199 o., 12 x 20 zm. Karmeldar Idaztiak. Larrea-Amorebieta. Itxaropena Argitaldaria argitaratua. Zarautz, 1954.

Arraun ta amets, Salvatore Mitxelena. (Bi partetako liburua; bigarren partea *Elezarrak*, kontarekin egiña). Olerki auk 83-garren orrialdetik 208-garreneara arte ditu. 12 x 18 zm. Kuliska Sorta 7-8. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1955.

Olerkiak, Felipe Arrese-Beitia. 688 o., 12 x 19 zm. Len eta Orain sorta. Aita Onaindia. Bilbao, 1956.

Iesu aurraren bizitza (aur poematxo), Manuel Lekuona. 14 o., 17,5 x 24 zm. Izarra Irarkola. Donostia, 1958. Geroztik beste bi argitalpen izan ditu.

Orbelak, Jaime Kerexeta. 97 o., 12 x 18 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1958.

Zeru-menditik (1941-1946), Jean Diharce «Irazeder». 97 o., 15,5 x 24,5 zm. Editions Ezkila. Urt, 1959.

Bitargi, Jaime Kerexeta. 107 o., 11 x 15 zm. Izarra Irarkola. Donostia, 1960.

Olerki ta idatzi guziak, Joakin Bedoña «Loramendi». 193 o., 12 x 18 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1960.

Uskeriak, Egieder. 168 o., 11 x 15 zm. Gráficas Bilbao. Bilbao, 1961.

Olerkiak, Iñaki Larramendi. 35 orrialde, 12 x 17 zm. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1960.

Urre-bitsa, Egieder. 195 o., 11 x 15 zm. Gráficas Bilbao. Bilbao, 1962.

Bertso ta lan guziak, Indalezio Bizkarrondo «Bilintx». 175 o., 11 x 18 zm. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1962.

Elorri, Bitoriano Gandiaga. 224 o., 13 x 20 zm. Frantzizkotarren Argitaldaria. Arantzazu-Oñate, 1962.

Berriz ere goldaketan, Iokin Zaitegi. 103 o., 10,5 x 15 zm. Editorial «Hispania». Guatemala, 1962.

Txindor egadak, Erramun Maruri. 143 o., 143 o., 12 x 19 zm. Izarra Irarkola. Donostia, 1964.

Ondarrak, Txomin Agirre (1864-1920). (Ipui, kontaera, zati aipagarriak eta olerkiak Aita Onaindiaren oarrekin). 261 o., 11,5 x 17 zm. Olerkiak dakartzkien orrialdeak 105-etik 155-era. Gráficas Bilbao. Bilbao, 1964.

II.—ITZULPENEKIN ARGITARATUTAKO LIBURUAK

Urrundik, Telesforo Monzón-Olaso. (Germán María de Iñurrategui-ren erderazko irudi adigarriekin). 213 orrialde, 16 x 24 zentimetru neurria. Talleres Gráficos «Cultura». México, D. F. 1945.

Euskalerrriaren Yakintza, Resurrección María de Azkue. Lau liburu 17 x 24 zentimetruko neurrian egiñak. Laugarrenak, 13-garren orrialdetik 197-garrena daukaz erri olerkiak. Espasa-Calpe, S. A. Madrid, 1947.

Flor de canciones populares vascas, P. Jorge de Riezu. 356 o., 11 x 18 zm. Editorial Vasca «Ekin». Buenos Aires, 1948.

Antología de poesía popular vasca, Juan Gorostiaga. 124 o., 15 x 23 zm. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. Donostia, 1955.

Biotz-begietan, Lizardi. (Bigarren argitalpena). 145 o., 12 x 18 zm. Kuliska Sorta 11-12. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1956.

Intza begietan, Claudio Sagartzazu «Satarka». 131 o., 12,5 x 19 zm. Industrias Gráficas Valverde, S. A. Donostia, 1957.

Poesias populares de los vascos, bi liburu, Francisque Michel, Aingeru Irigaray-ren itzulpena eta oarrak. 190 eta 223 o., 12 x 18 zm. Editorial Auñamendi. Donostia, 1962.

Bide-giroak, Luis María Mujika. 321 o., 12 x 17 zm. Editorial Sendo. Bilbao, 1963.

Harri eta Herri, Gabriel Aresti. 175 o., 12 x 18 zm. Kuliska Sorta 55. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1964.

Fantasia y realidad (Antología literaria vasca), egille askorenak. Bi liburu. 203 eta 227 o., 12 x 18 zm. Editorial Auñamendi. Donostia, 1964.

Urdin eta Burni, Luis M. Mujika. 208 o., 12 x 18 zm. Colección Auñamendi. Donostia, 1965.

III.—EUSKERATUTAKO LIBURUAK

Musika ixilla, (Fray Luis de León eta San Juan de la Cruz-en olerki autatuak) Juan Ignacio Goikoetxea «Gaztelu»-k euskeratuta, «Orixe»-ren sa-

rrerarekin. 252 orrialde, 15 x 21 zentimetru. Colección Azkue. Editorial Auñamendi. Donostia, 1963.

Iru poema, Rabindranath Tagore (Aita Onaindia-k itzulita). 174 o., 12 x 18 zm. Kuliska Sorta 53. Itxtaropena Argitaldaria. Zarautz, 1963.

IV.—EUSKAL OLERKIARI BURUZ IDATZI DIRAN LIBURUAK

Los Vascos, Rodney Gallop. 238 orrialde, 16 x 22 zentimetru. (Literaturari buruzkoa dakar 61-etik 136-garrenerako orrialdeetan). Ediciones Castilla, S. A. Madrid, 1948.

Compendio del poema vasco «Euskaldunak» de N. Ormaechea, Antonio María Labayen. 240 o., 15,5 x 22 zm. Editorial Icharopena. Zarautz, 1950.

Estudios sobre la poesía vasca, Jesús María de Leizaola. 205 o., 11 x 18 zm. Editorial Vasca, «Ekin». Buenos Aires, 1951.

Les Basques, Philippe Veyrin. 340 o., 17 x 22 zm. (197 eta 235 orrialdeetan dakar euskal literatura agozko eta idatzizkoari buruz). Editions Arthaud, 1955.

Historia de la Literatura Vasca, Luis Michelena. 180 o., 12 x 19 zm. Ediciones Minotauro. Madrid, 1960.

La «Crónica» en la poesía popular vasca, Jesús María de Leizaola. 222 o., 11 x 18 zm. Editorial Vasca «Ekin», Buenos Aires, 1961.

Historia de la Literatura Vasca, Luis Villasante. 445 o., 16 x 23 zm. Editorial Sendo. Bilbao, 1961.

Textos arcaicos vascos, Luis Michelena. (Maiz ari da olerki zarreri buruz). 203 o., 12 x 19 zm. Ediciones Minotauro. Madrid, 1964.

(Emen, liburu aipagarrienen berri bakarrik ematen dugu. Oieak bakarrik ez bai dira euskal olerkiari buruz ari diran liburuak. Emen aipagarrienen berria ematten dugu).

V.—EUSKAL OLERKIAK ARGITARATU DITUZTEN ALDIZKARIAK

Gure Herria, illeroko kultura aldizkaria, euskeraz eta frantsesez. Baionan argitaratzen da G. Eppherre kalonjearen zuzendaritza pean. 1938-an sortua da. Bertan, olerki askok ikusi dute argia.

Herria, (Hebdomadaire basque-français), 1944-garretetik Baionan argitaratzen dan astekaria. Ixa oraintxura arte Pierre Lafitte kalonjea, bere sortzaillea izan du zuzendari. Zenbaki bakoitzak idazki bat bakarrik ekartzen du frantsez idatzia; gainerrako guztia euskeraz dator. Albistari erara atera arren, beti dakar olerkiren bat.

Gernika, (Cahiers de Culture humaniste basque), iruillebeteroko aldizkaria (euskeraz, frantsez eta gazteleraz). Guztira 25 zenbaki argitaratu ziran Isidoro Fagoaga-ren zuzendaritzapean. 1945-etik 1951-ra Baionan, eta 1951-tik 1953-ra, urte onetan bukatu zan, Buenos Aires-en. Bere orrialdeak barna, lenengotik geiago, zenbait olerki argitaratu izan zituan.

El Bidasoa, Irun-Uranzu-ko astekaria, 1880-an sortua. (1866-an eman zioten argitaratzeko baime-na, baiña ez dakigu orduan zenbakirik argitaratu zanik) Aldi asko izan ditu, eta gaur oraindik jarraitzen du bi izkuntzatan argitaratzen (euskeraz eta gazteleraz). Zuzendaria Emilio Navas. *Arantzazu* aldizkariarekin batean, lenengokoa da gerrate ondoren euskerazko olerkiak argitaratzen asizana. Gudu ostean, aro berri batekin asi zan 1945-

ean, eta euskerazko lenengo idazkiekin batera, urte berean, euskal olerkiak ere argitaratzen asi zan.

Aránzazu, erlijio aldizkaria, illerokoa, Arantzazuko Frantzizkotarrena. 1921-ean sortua da. Sorkeratik da illerokoa. 1936-ra arte atera zan erderaeuskeran. Gudu ondoren, lenengoz erdera utsean, eta 1945-ean asi zan berriz euskerazko lanekin eta ain zuzen ere itz-lauz olerkiari buruzko idazki berekin asi zan. Eta, 1946-an argitaratu zituan lenengoko olerkiak.

Eguzko-gogoa, Iokin Zaitegi-ren zuzendaritzan, era berri bat sortu zan euskal literaturarentzat aldizkari onekin 1950. Bi illebetero argitaratzen asi zan euskera utsean, olerki sail berezi batekin. 1950-ean sortu zanetik 1955-era artean Guatemala-n egin zan. 1956-tik bukatu arte, 1959-an, Biarritz-en ateratzen zan. Azken aldian, indarrrik geien zuen denbora, nekegarria izan zitzaion lana aurrera eramatea, anitz eragozpen izan bai zituan mugatik onuntza igarotzeko. Geien bat ere, iztillu oiek suntzitu zuten aldizkari au

Karmel, urteroko egutegi erara asi zan 1951-ean Aita Onaindiaren zuzendaritzapean. 1956-an iru illebetero ateratzen asi zan. Eta 1958 bi illebetero, 1961-era arte. Eragozpenak izan zituan eta 1962 ale bakarra argitaratu zan. Euskera utsezko aldizkai onek beti izan zuen olerkiarentzat sail berezi bat. Larrea-Amorebieta-n argitaratzen zan.

Egan, literatura aldizkaria. 1949-garren inguruan sortua, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-ko Boletín-aren eraskin bezela, Donostian. 1950 azaldu zan lenbizikoz euskerazko lana; ta gaiñera, ain zuzen ere, olerkia. Erderazko laguntza gutxituaz joan zan, eta 1953-an eta 1954-an euskera utsean atera zan. Bere lenengoko asmutik aldentzerakoan, R. S. V. A. P.-ko *Boletín*-aren literatura eraskin bezela, eriotzara kondenatua zegoala zirudiana. Baiña, Julio Urkijo Mintegia egin zan bere jabe, eta 1955-etik, euskera utsean atera-

tzen jarraitzen du A. Arrua, A. Irigaray eta L. Mitxelena-ren zuzendaritzapean. Gaur, euskeraz argitaratzen diran aldizkarietatik onena edo onenetakoa dugu. Zenbaki guzietan argitaratzen ditu olerkiak.

Boletín Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-koa. Donostian du bere etxea. Iru illebeteroko aldizkaria da eta bere gai jakiñekoenak kondaira, arkeologia, heraldika eta abar izanarren, Euskalerrinari buruz, sarri argitaratzen ditu izkuntzari buruzko azterketak ere, eta beren tartean aintziñako olerkienak ere bai. Guziz erderazkoa izanarren, erabiltzen dituan izkuntza gaiak euskerazko atalak erderazko itzulpenekin ekartzen ditu. Eta orrez gaiñera, zenbait euskal libururen bibliografia aipamenak ere argitaratzen ditu.

Euskera, Euskaltzaindiaren aldizkaria. Bere sorreratik argitaratzen zan, 1919-tik 1936-ra arte, Bilbon, Azkueren zuzendaritzan. Ixa dana izkuntzari buruzko azterketa lanekin. 1956-an berriz asi zan argitaratzen. Oraingoan Alfonso Irigoyen-en zuzendaritzapean. Bilbon orain ere. Eta geiena izkuntzari buruzkoa izanarren, argitaratu izan ditu olerkari zarreri buruzko zenbait lan, eta ortik aparte ikusi dute argia zenbait poemak ere: Aresti-ren *Maldan behera*, V-garren tomoaren 189-234 orrialdeetan, 1960-an, Euskaltzaindiak eraturako «Loramendi»-ren omenezko olerki sariketako lenengoa bezela. Nikolas Ormaetxea «Orixe»-ren *Lau urta-roak nere begietan*, VI-garren tomoaren 337-344 orrialdeetan, 1961, Euskaltzaindiak Tolosan eraturako «Lizardi» olerki sariketaren lenengoa bezela. Eta Antonio Bilbao-ren *Irribarre ta lore*, VII-garren tomoaren 347-348 orrialdeetan, 1962, «Lizardi» saria irabazi zuana.

Jakin, fraile ikasleen aldizkaria. Euskera utsean. Arantzazun sortu zan 1956-an iru-illebeteko aldizkari bezela, multikopistan egiña. 1961-garren ur-

tean asi zan inprimaturik ateratzen eta zenbait eragozpen izan zuen eta ez zan atera 1964-garren urtera arte. Olerki gutxi argitaratu du.

Zeruko Argia, 1919-an sortua, 1936-ra arte argitaratu zan. 1954-an berriz asi zan argitaratzen. 1960-an era berri bat sortu zuan albistari bezela atereaz. Iilerokoa. Irugarren zenbakian gelditu zan. Ezin izan dute atera berriz 1963-ra arte. Urte ontako epaillean asi zan berriz astekari bezela. Gerroztik orrela ateratzen da, zuzendaritza Donostian duelarik eta irarkola Iruñen. Zuzendari: Agustín Ezeiza (Aita Beizama); erredazioaren buru, Jabier Aranburu. Maiz argitaratzen dira olerkiak. Eta zenbait olerkarik ere laguntzen dute bestelako idazkiekin.

Olerti, euskera utsezko aldizkaria eta gaiñera olerkia duela bere gai bakarra. Zuzendaria: Aita Onaindia. 1959-garren urtean sortua da. Asieran iru-illebetero ateratzen zan. Neurria 18 x 11 zentimetru. Zenbaki bakoitzak 60 orrialde inguru. Euskal olerki argitaratu gabeak, beste izkuntza batzuetatik euskerara itzulitako olerkiak, saioak, irizpideak eta oarrak, guzia olerkaritzari buruz. 1963-garrenan izan zituan eragozpen batzuek, aldizkari bezela aurrera jarraitzeko, eta orduandik lortzen du argitaratzea olerki bilduma bezela urtean bi aldiz, lantzian izen batekin «Olerti» sorta bezela. Lena bezela Larrea-Amorebieta-n ateratzen da (Bizkaia). Sei-illabeteroko zenbaki bakoitzak 140-tik 180 orrialde inguru izaten ditu. Neurriak lengo bezela, 18 x 11 zm. Euskal olerkiaren alderako lortu danik aldizkaririk onena da noski. Aldizkai beronek egiten du urtero olerki sariketa bat. Eta sariak banatzean «Olerki eguna» egiten da Larrea bertan, ta gaiñera olerkiari buruzko solasa egiten da egun berean olerkari irizlariren baten zuzendaritzan.

GOIZ-ARGI. Illerokoa. Tilosa-n sortua 1960-an. Aita Franziskotarrak ateratzen dute. Geien bat ere baserritarrentzako asmoan egiña da kaseta bezela. Zenbaki guzietan agertzen dira olerkiak. 8 orrialde izaten ditu, bere 38 x 27 zm. neurrian.

Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos. Buenos Aires. Zuzendaria Aita Bonifazio Ataun-goia. 1950-an sortu zan bertan Buenos Aires-en. Iru illabetetik bein argitaratzen da. 40-tik 60 orrialde ingurura izaten ditu 3,5 x 16,5 zm. neurrian. Euskalerriko kondaira ta kulturari buruzkoa izanarren, maiz ekartzen ditu aintziñako olerkiak beren estudioa eginaz.

Oietzaz gaiñera, naiz euskera utsean edo naiz euskera-erderan, beste aldizkari batzuek ere argitaratzen dira, baiña gure iritzian ez dute emen aipatzen ditugunen besteko garrantzia. Ta, guziak aipatzea luzeegi aterako litzakealako, emen, merezigarrienak bakarrik sartu ditugu. Orraitiok, beren artean, aipamen berezi bat egin gabe ezin ditugu utzi: *Arnas* (Villaroko Sakramentinoak argitaratzen dutena), *Laiaketan* (Urretxuko Pasiotar gazteena), *Bidez* (Eubako Pasiotarrena), *Jesús'en biotzaren deya* (Jesulagunak «El Mensajero del Corazón de Jesús», Bilbao, ateratzen dutena, eta *Gogoz*, Begoña'ko karmeldar gazteena.

7. San Martín